



UDALBILTZA

LEHENDAKARIA

ZERBITZUETAKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ADJUDIKATZEKO
ADMINISTRAZIO- KLAUSULEN AGIRIA

UDALBILTZA PARTZUERGOAK GEURETIK SORTUAK 2023-2024 BEKA DEIALDIRAKO
ANTOLATZEN DITUEN ANTZERKIETARAKO ZERBITZU TEKNIKOA, EKIPOEN
ALOKAIRUA, MANTENU ESZENIKOA ETA AURRE-EKOIZPENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu hauetan oinarrituko den kontratuaren helburua honakoa izango da:
Udalbiltza Partzuergoak Geuretik Sortuak 2023-2024 beka deialdirako antolatzen
dituen antzerkietarako zerbitzu teknikoa, ekipoen alokairua, mantenu eszenikoa
eta aurre-ekoizpena

Kontratuaren xedea betetzeko baldintza hauek jarraitu beharko dira: kontratuan,
plegu hauetan eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoak. Agiri horiek
guztiak kontratu izaera dute.

CPV nomenklaturaren kodifikazioa, kontratuaren xedeari dagokiona:

79952000-2 Ekitaldien zerbitzuak

32320000-2 Ikus-entzunezko eta telebistako ekipoa.



Kontratu honen xedea sorta bakar batean dator.

Zerbitzu horretan ez da bidezkoa loteak banatzea, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.3 artikulua araber.

Zerbitzua batera emateko, bitartekoak optimizatzeko printzipioei jarraitzen zaie. Lotekako lizitazioak kostuak nabarmen handitzea ekarriko lioke Partzuergoko ogasunari, ezinbestean, eta hori gastu publikoa arrazionalizatzeko printzipioen aurka doa.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Egingo den kontratua hornidura eta zerbitzuetako kontratu misto modura sailkatzen da, eta honako arau eta lege hauen menpe garatuko da: azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena-aurrerantzean SPKL- (18 artikulua); 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena, horrek indarrean dirauen bitartean; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; edo horiek ordezkatzeko dituzten erregelamenduzko arauak, eta Administrazio-klausula Partikularren Agiri honetan jasotako klausulak.

Espediente arrunta tramitatuko da, kontratua prozedura ireki bidez adjudikatzeko, SPKLaren 156 artikuluan xedatutakoaren araber.

3. KONTRATAZIO-ORGANOA

SPKLak 2. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren araber, Partzuergoko Lehendakariak izango du kontratazio hau egiteko ahalmena.

Kontratazio-organo horrek du administrazio- kontratua adjudikatzeko ahalmena, eta, horrenbestez, bere eskumenekoak izango dira honakoak ere: kontratua interpretatzea; kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea; kontratua aldatzea; eta kontratua amaitzea. Horiek guztiak araudi aplikagarriarekin bat etorriz. Horiei buruz hartutako akordioak betearaztekoak izango dira, nahiz eta enpresa



adjudikaziodunak eskubidea izango duen akordio horiek jurisdikzio eskudunaren aurrean inpugnatzeko.

4. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta euren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, SPKLak 71 artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Pertsona juridikoak adjudikaziodun izan daitezke, soil-soilik euren prestazioak jardueraren xede, helburu edo arloan sartuta badaude eta euren estatutu edo fundazio-arauetan hala jasota badago. Gainera, kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoa den antolakuntza edukiko du (nahikoa langile eta materialekin).

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariak agiri bidez frogatu beharko dute ordezkari izateko ahalmena dutela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.

Prozedura tramitatzen ari den bitartean eta adjudikazioa egin baino lehen enpresa lizitatzaileraren nortasun juridikoa amaitzen bada (fusioagatik, zatiketagatik edo bere enpresa- ondarea eskualdatzeagatik), orduan honako hauetako batek hartuko du prozeduran hark zuen lekua: sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortutakoak, zatiketaren onuradunak edo ondarea bereganatu duenak, baldin eta kontratatzeke gaitasuna izan eta hartarako inolako debekurik ez badu eta sailkapena eta/edo kaudimena duela egiaztatzen badu, betiere adjudikazio prozeduran parte hartzeko legu hauetan eskatutako baldintzetan.

Kontratatzeke gaitasuna eta kaudimena enpresa adjudikaziodunak bakarrik egiaztatuko ditu.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZE EPEA



- ⌚ Kontratuaren iraupena, 2023-2024 ziklorako epea izango du. 2024ean zehar egingo diren antzerki emanaldietarako..
- ⌚ Kontratua gauzatzeko epea aurrez zehaztutakoa izango da, eta luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izango da 2026ko abendutik gorakoa izan.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, betiere, kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez bidali bazaio aurreabisua.

Indarraldia eta, hala badagokio, luzapenak igaro ondoren, kontratua automatikoki amaituko da, eta enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateari utziko dio. Hala ere, nahitaez jarraitu beharko du, baldin eta adjudikaziodunaren xede den zerbitzu berria lizitzatzeko espedientea hasi bada eta enpresa adjudikaziodun berriak bere gain hartu arte. Aldi horretan, kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoko ditu.

6. AURREKONTUA. LIZITAZIO TASA

- a. Lizitzaileek haien prezio onena adieraziko dituzte euren proposamen ekonomikoetan.

Eskaintzen diren prezioetan honakoak egongo dira sartuta:

1. Ekipamendua alokairu erregimenean hornitzean ekipamendua garraiatu, muntatu, kableatu, erabili eta desmuntatu.
2. Alokaturako material horrek behar bezala funtzionatzen duela egiaztatuko da. Materiala erabiltzeko egoera ezin hobean egongo da, eta araudi aplikagarriak eskatzen dituen segurtasun neurriak beteko ditu.
3. Materialak uniformetasun estetiko bat izango du, eta kokatu behar duten espazioetako beharretara egokitua egongo da.



4. Ekipoak desmuntatu ondoren, horiek kokatu diren lekua libre, oztoporik gabe, garbi eta elementuak muntatu zituzteneko baldintza berberetan utziko du kontratistak.
5. Ekipamenduak estaltzeko behar diren elementuak jarri beharko ditu adjudikaziodunak (kontrola estaltzeko karpak, euria egiten badu ekipamenduak estaltzeko olanak, etab.). Puntu honetan aipatzen diren elementuek erabiltzeko baldintza estetiko eta higieniko ezin hobeetan egon beharko dute, eta kasu guztietan kolore beltza hobetsiko da.
6. Kontratistak behar adina kable estalki eduki beharko du (25m gutxienez) kanpoan (bide publikoan) instalazioak egiteko, baita suteak itzaltzeko beharrezko bitartekoak ere, bere ekipamenduan suteren bat gertatuz gero erabiltzeko.

- b. Kontratuaren zikloko gastua (2023-2024), Udalbiltza Partzuergoak egin dituen kalkuluen arabera, 48.400,00 eurokoa izango da, BEZa barne (40.000 euro + 8.400 euro BEZarenak). Zenbateko horretan zerbitzutik eratorritako era guztietako gastuak sartuko dira. Kalkulo ekonomiko hau egiteko orduan honako datuak kontuan hartu izan dira:

i.52 emanaldi.

ii.Horietatik herenak kale antzerkia izango dira.

Beraz, SPKL-aren 101.a artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau izango da kontratuaren balio zenbatetsia, eta BEZ sartu gabe: 80.000 euro izango da, bi ziklotan zabaldu ahal izango baita.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioa ez da berrikusiko.

8. FINANTZIAZIOA



Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo Partzuergoaren aurrekontuan.

Halaber, Partzuergoak konpromisoa hartu du zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko.

9. ORDAINKETA

Prezioa zatikatuta ordainduko da. Horretarako enpresa edota entitate adjudikaziodunak aurreko hilean egindako lanei dagokien FAKTURA aurkeztuko du, hain zuzen ere, benetan emandako zerbitzuagatik dagokiona.

Faktura onartu ondoren, SPKLak 198 artikuluan jarritako legezko epeetan ordainduko da.

Enpresa adjudikaziodunari ez dagozkion arrazoiengatik, kontratuaren helburu diren prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion ziurtagirian kendura proportzionalak egingo dira.

10. BERMEAK

Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailleak, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 10 egun baliouduneko epea izango du berme bat eratzeko, hain zuzen ere, adjudikatutakoaren zenbatekoaren %5 (BEZ gabe).

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren proposamen ekonomikoa hasieran anormaltzat edo neurritz kanpokotzat jotzen bada, gero onartu ahal izateko, aurreko bermeaz gain, berme osagarri bat eratu beharko du (adjudikazioaren zenbatekoaren % 5ekoa), berme osoa kontratuaren prezioaren% 10era irits dadin.

SPKLak 108.1. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da berme hori.

Bermea dirutan jartzen bada, zenbatekoa Euskadiko Kutxan sartuko da 3035/0214/39/2140011489 zenbakiko kontu korrontean, eta abonu-agiriaren kopia bat eramango da Partzuergoko Administrazioa. Horrekin batera kontu korrante baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermea itzultzean dirua bertan sartzeko.



Bermea (osorik edo, halakorik bada, zati bat) SPKLak 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz itzuliko da, berme-epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak kontratuko obligazioak bete ondoren.

II.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

11. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki bidez adjudikatuko da.

Kontratuaren adjudikazioa egiteko honako balorazio irizpideak hartuko dira oinarritzat, bakoitzak duen garrantzi eta haztaperaren arabera beheraka ordenatuta:

- o **Formula bidez ebaluatu daitekeen irizpidea: 51 puntu**
 - Proposamen ekonomikoa: gehienez 44 puntu
 - Zerbitzua emango duen profesional- taldean emakumeen presentzia: gehienez 3,5 puntu
 - Kontziliazio neurriak: gehienez 3,5 puntu

- o **Formula bidez ebaluatu ezin den irizpidea: Eskaintza teknikoa garatzea 49 puntu**

11.3. FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN IRIZPIDEA: GEHIENEZ 51 PUNTU [c artxibo elektronikoan sartu beharrekoa]

11.3.1. Irizpidea: Eskaintza ekonomikoa: 44 puntu gehienez



III. eranskinean adierazitako kontzeptuen unitate zenbatetsiak eta eskaintako prezio unitarioak biderkatzearen ondoriozko prezio guztien batura. Proposamenik onenak 44 puntu lortuko ditu, eta gainerako proposamenek honako formula honen arabera puntuazioa lortuko dute:

$$EB = (Etx/EZ) \times 44$$

Esanahia: EB= eskaintzaren balorazioa

Etx= eskaintako zenbateko txikiena

EZ= eskaintzaren zenbatekoa

Eskaintzak neurritz kanpokoak direla edo balore anormalak dituztela ebazteko, aztertu egingo da lizitatuzailea ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen ote den, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 85. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz:

1. Lizitatuzaile bakarra izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak lizitazioaren oinarritzko aurrekontua portzentajezko 25 unitatetan beheratzen badu.
 2. Bi lizitatuzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak beste diru-eskaintza portzentajezko 20 unitatetan beheratzen badu.
 3. Hiru lizitatuzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, batez besteko hori ateratzeko ez da sartuko eskaintza ekonomiko altuena, baldin batez besteko hori baino portzentajezko 10 unitate altuagoa bada. Dena den, portzentajezko 25 unitateko beherapena neurritz kanpokotzat joko da.
- Lau lizitatuzaile edo gehiago izanik, aurkeztutako eskaintzak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, baldin eskaintza horien artean batez besteko hori portzentajezko 10 unitatetan gaintzen duten eskaintzak badaude, batez besteko berria kalkulatu da, adierazitako azken kasu horretan sartzen ez diren eskaintzekin bakarrik. Dena den, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria kopuru baxuenak dituzten hiru eskaintzekin kalkulatu da.

Eskaintzetakoren bat/batzuk anormaltasun presuntzioan baldin badago/badaude, lizitatuzaile horiei 5 egun balioduneko epea emango zaie, eskaintza hori baldintza horietan bete ahal izateko inguruabarren justifikazio egoki bat aurkezteko, SPKLren 149.4. artikuluan horri buruz aipatzen diren irizpideekin.



11.3.2. Zerbitzua emango duen profesional- taldean emakumeen presentzia 3,5 puntu gehienez

Emakumeen portzentajea %75 edo gehiago: 3,5 puntu

Emakumeen portzentajea %50-%74 bitartekoa: puntu 2,5 pun5u

Emakumeen portzentajea %30-%49 bitartekoa: 1,5 puntu

Emakumeen portzentajea %10-%29 bitartekoa: 0,5 puntu

Baldintza hau baloratzeko kontratua exekutatu duten pertsonen zerrenda sexuka bereizita aurkeztu beharko dute.

11.3.3. Entitate lizitatuak kontratatu duten pertsonak erabiltzeko kontziliazio-neurriak edukiko dituzten pertsona, lana eta familia-bizitza uztartzeko: 3,5 puntu

Konziliazio neurrien plana aurkeztu beharko dute, bestela ez da baloratuko

11.4. FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK: GEHIENEZ 49 PUNTU (B ARTXIBO ELEKTRONIKOAN SARTU BEHARREKOA)

SPKLaren 146.3 artikularen arabera, balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan enpresa lizitatuak % 50eko gutxienera mugatu behar diren irizpideen multzoan. Hala, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko **24,5 puntutara** iristen ez diren eskaintzak.

Eskaintza teknikoak garatzea (49 puntu, gehienez)



11.4.1. Lan metodologiaren kalitatea eta bikaintasuna. 30 puntu, gehienez.

Enpresak zerbitzua garatzeko erabiliko duen lan metodologia aurkeztu beharko du idatzizko proiektu batean. Partzuergoak dituen beharrei erantzuteko duen gaitasuna demostratu beharko du. Eta bere zerbitzuaren kalitatea eta bikaintasuna frogatu beharko du hiru arlotan:

-Ekoizpenean

-Zerbitzu teknikoan

-Tokian tokiko ekipamendu eszenikoaren mantenuan

Atal bakoitzean nola garatuko duen bere lana, epeak, aurrekontuak, ekoizpena nola egingo den, kronogramak Udalarekin elkarlanerako erabiliko dituen prozedurak eta atal bakoitza ebaluatu eta zerbitzuaren bikaintasuna lortzeko erabiliko dituen bitartekak adieraziko dira.

Aurkeztutako eskaintza baztertu egingo da baldin atal honetan gutxienez 15 puntu lortzen ez badira.

11.4.2. Eskaintako ekipoen kalitatea. 10 puntu, gehienez.

Zerbitzuak emateko enpresak proposatutako ekipo tekniko eszenikoak balioztatuko dira:

a. Kalitate teknikoa. 10 puntu, gehienez.

11.4.3. Aurreikusitako erabileretara egokitzea. Partzuergoak proposatutako materialen zerrenda beharren arabera egokitzeke proposamena . 5 puntu, gehienez.

Aurkeztutako eskaintza baztertu egingo da baldin atal honetan gutxienez 5 puntu lortzen ez badira.



11.4.4. Aurkeztutako lan taldea eta ekipoak kudeatzeko enpresak duen antolamendu gaitasuna. 9 puntu, gehienez.

Zerbitzuak emateko enpresak proposatutako antolamendu gaitasuna baloratuko da:

- Giza baliabideen kudeaketarako enpresak dituen baliabideak eta lan egiteko sistemak. 5 puntu, gehienez.
- Ekipo teknikoen kudeaketarako enpresak dituen lan egiteko sistemak. 4 puntu, gehienez.

Aurkeztutako eskaintza baztertu egingo da baldin atal honetan gutxienez 4,5 puntu lortzen ez badira.

12. ESKAINTZEN AURKEZPENA

Kontratazio honen espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa Partzuergoko helbide elektronikora igorriko da, udalbiltza@udalbiltza.eus helbidera edo Oiartzungo udalean bulegoak jendearentzat irekita dauden ordutegian, lizitazio-iragarkia Udalbiltza Partzuergoak GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Era berean, Udalbiltza Partzuergoko web orriaren bidez sartu ahal izango da kontratazioan, bere dokumentazio teknikoan, pleguetan eta dokumentazio osagarrian, lizitazio- iragarkia GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Kontratazio unitatearekin harremanetan jartzeko, helbide honetara joan:

KONTRATAZIO UNITATEA

Doneztebe Plaza, 1, 20180 Oiartzun

Tel: 943 544023



E-maila: udalbiltza@udalbiltza.eus

<http://www.udalbiltza.eus>

Proposamenak aurkezteko, epe honetan: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera iragarkia bidaltzen den egunetik kontatzen hasi eta **HOGETA HAMABOST (35) EGUN NATURALEKO** epean.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.

Eskaintzak euskaraz idatzita aurkeztu beharko dira.

Lizitatuak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, ezingo du beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkartea eratuta beste eskaintzarik aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.

Lizitatuak agiriari edo, egonez gero, dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori eskaintzak jasotzeko jarritako epe-mugaren aurreko sei egunen barruan emango zaie, baldin eskaera hori eskaintzak jasotzeko aurrez adierazitako epea bukatu baino gutxienez zortzi egun lehenago egiten badute.

Zalantzarik izan ez gero Interesa dutenek helbide honetara bidali beharko dute galdera: udalbiltza@udalbiltza.eus

Espedienteari erantsi beharreko dokumentuen kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legerian horretarako ezarritakoa bete beharko dute, eta bertan ezarritako ondorioak ordeztu beharko dituzte.

PROPOSAMENEN EDUKIA:



Enpresa lizitatzailleek HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C).

- "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" deituko da, eta honako hauek jasoko ditu:

- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)

EKAB formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoa betetzeko web-orri honetan: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/esp/filter?lang=es>

*ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK

Hainbat enpresa aldi baterako enpresa-elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta horietan jasota egongo da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan kasu hauetarako eskatzen den informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpen horren edo horien osagarri gisa, aldi baterako elkartearen parte diren enpresen konpromiso bat aurkeztuko da. Hor adieraziko dute SPKLren 69. artikulua 3 atalean eskatutakoaren arabera egingo dela aldi baterako elkartea.

**ATZERRIKO ENPRESAK

SPKLren 67 eta 68 artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute atzerriko enpresek beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diotela, hala behar badute, enpresa lizitatzailleei legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.



- "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOAK azpítitulu hau izango du: "ESKAINZA TEKNIKOA". Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak: Plegu hauetako 11.2. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.

Plegu hauetan adierazitako adjudikazio irizpideen arabera, eskaintzaren puntuak baloratzeko beharrezko iruditzen zaion dokumentazio guztia sartuko du lizitatzailleak.

Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko ez proposamen ekonomikoa ez eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko beste daturik ere; horiek guztiak "C" artxiboan sartuko dira..

- "C" ARTXIBO ELEKTRONIKOAK azpítitulu hau izango du: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA". Hona hemen "C" artxiboan aurkeztu beharreko agiriak:

Kopuruetan edo portzentajeetan baloratzekoa den irizpideari buruzko eskaintza ekonomikoa sartuko da, hain zuzen, plegu honetako 11.1. atalean adierazitakoa. Plegu hauen II eranskinetako ereduaren arabera eskaintza ekonomikoa aurkeztuko da.

Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko balio- iritzi baten bidez baloratzekoak diren adjudikazio- irizpideei buruzko daturik (formula bidez ebaluatzeko ez dena); horiek guztiak "B" artxiboan sartuko dira.

Datu horietako edozein "C" artxiboan sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatzekoak diren adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.



1. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

2023ko ekainaren 28an egindako bilkuran Udalbiltzaren Kontseilu Nagusiak besteak beste erabaki zuen Udalbiltza Partzuergoaren kontratazio-mahai Iraunkorra eratzea Batzorde Eragilean. Batzorde Eragilea izango da ere behin betiko adjudikatzeaz arduratuko dena, Udalbiltzaren Estatutuen 20.h) eta 20. artikulua azken paragrafoan xedatua jarraituz.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du ("A" artxiboa). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak.

Jendaurrekoa ez den egintza horretan, onartutako enpresen "B" artxiboa irekiko da (formula bidez ebaluatzeak ez diren irizpideak), eta artxiboan sartutako agiriaren zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da.

Jarraian, "B" artxiboko edukia Udalbiltza Partzuergoko teknikariei bidaliko zaie, haiek formula bidez ebaluatzeak ez diren adjudikazio-irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Hori bai, txosten horrez gain, beste txosten tekniko batzuk ere eskatu ahal izango dira, ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak direla uste izanez gero.

Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio- mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatuak bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du.

Kontratazio-mahaiak, jendaurreko egintzan elkartuta, enpresa bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, "C" artxiboak ireki (formula bidez



ebalutzeko irizpideak], eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

“C” artxiboa irekitzeko jendaurreko egintza Udalbiltza Partzuergoko web orriko gardentasun atarian adierazitako toki eta egunean izango da.

Kontratazio-mahaiari beharrezko iruditzen bazaio, “C” artxiboak Udalbiltzako teknikariei bidaltzea erabaki dezake, haiek azter ditzaten eta formula aritmetikoen bitartez ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko txostena egin dezaten.

Gero, Kontratazio-mahaiak kontratua adjudikatzeko proposamena aurkeztuko dio Partzuergoko Lehendakariari.

2. BERDINKETA

Proposamenen puntuazioan dagoen berdintasunaren aurrean, eta SPKLren 147. artikulua araber, berdinketa erabakitzeko, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari dagozkion irizpide sozial hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan:

- 1.- Plantillan desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa, lehentasuna emanaz plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handienari edo plantillan txertatuta dauden langileen kopuru handienari.
- 2.- Plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiena.
- 3.- Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- 4.- Zozketa, aurreko irizpideen aplikazioak berdinketa haustea eragin ez badu.

Klausula honetan aipatzen diren berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen den unean lizitatzen dutenek aurkeztuko dituzte, eta ez aldez aurretik.

3. KONTRATUA ADJUDIKATZEA



Eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da kontratuaren adjudikazioa. Epe hori igaro eta oraindik adjudikaziorik egin ez bada, lizitatzailleek eskaintzak erretiratu ahalko dituzte.

Dena den, adjudikazioa nahitaez egin behar da, baldin eta aurkeztutako eskaintzaren batek administrazio-klausulen agirian eskatutako baldintzak betetzen baditu. Kasu horretan lizitazioa ezingo da hutsik laga.

Edonola ere, SPKLaren 152 artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratazio-organoak, adjudikazioa egin baino lehen, kontratua ez egitea erabaki dezake, herri-onurako arrazoiak direla-eta; edota tramitatutako prozeduran atzera egin dezake, prozedurak akats konponezinak baditu.

Kontratuaren adjudikazioak beti arrazoitua izan behar du, eta parte hartu dutenei jakinaraziko zaie. Aldi berean, kontratazio-organoaren gardentasun atarian ere argitaratuko da.

Kontratazio-mahaiak egindako proposamena ikusita, eskaintza ekonomiko onena egiten duen enpresa lizitatzailleari eskatuko zaio ondorengo zirkunstantzietan buruzko frogagiriak aurkez ditzala, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean:

- ⌚ Lizitatzailleak bere izenean badihardu: nortasun- agiri nazionala. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala eta notario-ahalorde askietsia.

- ⌚ Lizitatzaillea pertsona juridikoa izanez gero, eratze edo aldaketa eskritura aurkeztuko du, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin inskripzioa derrigorrezkoa bada, aplikatu behar zaion merkataritzako legediaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio- egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzaillearen jarduera



zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide edo merkataritza erregistro bateko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Edo bestela, zinpeko aitortpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenekin bat etorritz.

- ⌚ Indarrean dauden xedapenek agindu bezala, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak kitatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.

- ⌚ Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda dagoela egiaztatzea, hain zuzen ere, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako alta aurkeztuko da, baldin aurtengo ekitaldiari badagokio, edo JEZen azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan erantzukizunpeko aitortpena ere aurkeztuko da, adierazteko zerga horren matrikulan ez duela bajarik hartu.

- ⌚ Enpresa lizitatzailerak kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala duela ziurtatu beharko du:

e.1.) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Agiri hauek aurkeztuta egiaztatu beharko da:

Urteko negozio bolumena enpresariaren jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkenengo hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 125.000,00 euro edo handiagokoa izan behar du.

Enpresa lizitatzaileraren edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena egiaztatzeko, urteko kontuak erabiliko dira (onartutakoak eta Merkataritza Erregistroan jasotakoak), enpresa Erregistro horretan inskribatuta badago; eta, bestela, inskribatuta egon behar duen Erregistro Ofizialean jasotakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek urteko negozioen bolumena egiaztatzeko, berriz, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuak eta urteko kontuak erabiliko dituzte.

e.2) Kaudimen teknikoa:



Gutxienez, azken hiru urteetan kontratuaren xedearekin lotutako zerbitzuak egin izana egiaztatu beharko da, zerbitzu guztien batura 125.000,00 euro edo gehiago, BEZik gabe.

Zerbitzuen sustatzaileak emandako gauzatze onaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Ziurtagiri horiek honako hauek adieraziko dituzte: sustatzailea, zerbitzuaren izena eta gauzatze-lekua adjudikazioaren zenbatekoa, likidazioaren zenbatekoa, hasiera-data, amaiera- data.

Giza baliabideak:

lizitatzailerak gutxienez Baldintza teknikoen agiriko 3. Atalean zehaztutako giza baliabideak adskribatu behar ditu kontratuan (horiek kontratuaren funtsezko betebeharrak izango dira, SPKLren 211. f) artikuluan xedatutako ondorioetarako; beraz, betetzen ez badira, kontratua bukatzeko arrazoi izan daitezke, administrazio kontratatzaileak hala nahi badu.

- 🕒 Administrazio baldintzen agiriko 19. atalean adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzea.
- 🕒 Behin betiko bermea jarri izanaren frogagiria.
- 🕒 150.000 euroko estaldurako Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza kontratatuta izatearen egiaztagiria, polizaren eta dagokion ordainagiriaren bidez.

Oharra: a), b) eta e 1) letretan adierazitako zirkunstantziak honela egiaztatu ahal izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; edo Europako erkidegoko sailkapeneko ziurtagiri bidez, SPKLak 97. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera lizitatzailaren zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da, azaltzen duena ziurtagiri horretan adierazitako zirkunstantziek ez dutela inolako aldaketarik izan.



SPKLren 139.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamena egiteak baimena ematen die kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotako datuak kontsultatzeko.

Aurreko hamar eguneko epea bukatu eta hurrengo bost egun baliodunetan egingo da adjudikazioa, betiere lizitzaileak adierazi zaizkion dokumentuak aurkeztu baditu eta behin betiko bermea jarri badu.

Eskakizun horiek zehaztutako epean ez betetzeagatik adjudikazioa egiten ez bada, beste deialdi bat egin aurretik, Administrazioak aukera izango du hurrengo lizitzaileari edo lizitzaileei adjudikatzeko, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, betiere hala egitea posible bada eta enpresa adjudikaziodun berria ados badago. Egoera horretan, hamar egun balioduneko epea irekiko da aipatu berri den guztia burutzeko.

SPKLak 152.2 artikuluan aurreikusten duenari jarraituz, kontratua egiten ez bada, edota adjudikazioaren aurretik kontratazio-organoak erabakitako prozedura honi uko egiten bazaio, Administrazioak zehaztuko du lizitzaileei eragindako gastuaren zenbatekoa, aurretik haiekin egon eta justifikazioak entzun ondoren.

Aurkeztutako eskaintzak —bai onartutakoak bai ireki gabe baztertutakoak edo ireki ondoren atzera botatakoak— bere espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatu ondoren errekursoak jartzeko epea irekiko da. Epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, proposamenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura utziko da.

Dokumentazio hori interesdunen eskura jartzen denetik hilabeteko epean (1 hilabete) inork jasotzen ez badu, administrazioak erabaki dezake pertsona edo enpresa lizitzaileek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz- mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da.



Administrazioaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, atzerapenak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio enpresa adjudikaziodunari

4. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da kontratua, SPKLak 153 artikuluan xedatu bezala; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

5. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Udalbiltza Partzuergoko Kulturako arduraduna izango da kontratu hau gauzatzearen arduraduna, SPKLren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. KONTRATUA GAUZATZEA

Enpresa adjudikaziodunaren gain eta kontura beteko da kontratua, SPKLaren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua gauzatzeko, plegu honetan jasotako klausulak eta espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Enpresa adjudikaziodunari edo bere mendeko pertsoneri leporatu ahal zaizkien ekintzengatik edo omisioengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.



Kontratista berari egoztekoak diren arrazoiak direla-eta, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutzen bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo SPKLren 192 eta 193. artikuluek aurre ikusitako zigorrak jartzea.

Kontratuaren xede den prestazioa gaizki betetzen den kasuetan, kontratazio-organoak zigorrak jarri ahal izango ditu, larritasunaren proportzioan: kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 1etik % 10era bitartean.

7. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1. Hizkuntza arloan. Eskubideak eta betebeharrak euskararen erabileran.

- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean arauetan erregulatua.

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren arabekoak izango dira, beti euskaraz.

2. Zerbitzu hizkuntza

Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusiki euskara izango da, eta kontratatuko enpresaren betebeharra izango da hori bermatzeko beharrezko neurriak hartzea.

Kontratazio honen bitartez eskainitako zerbitzuan euskarazko harremanak sustatuko dira, Geuretik Sortuak ekimenak euskara eta kultura, kultura eta euskara ditu eta ardatz.

3. Langileen hizkuntz gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar



lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik,

- a. Zerbitzuburuak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (EGA edo baliokidea) egiaztatu beharko du.
- b. Gainerako langileek (arduradun teknikoak, ekoizpen arduradunak eta lantaldeko gainerako teknikariek) Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila (2. hizkuntza eskakizunaren parekoa) egiaztatu beharko dute, ahozko trebetasunean.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeke honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- c. Zerbitzua eman behar duten pertsonak eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- d. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

4. Udalbiltzarekiko harremana:

Kontratu honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratuak, fakturak, txostenak, memoriak, bilerak, kontsultak...) euskaraz izango dira administrazio kontratatzailearekin.

- 5.** Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 211.f) artikulua araberak.



6. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. eta

210. artikuluekin bat etorritik, kontratuaren arduradunak kontratuaren hizkuntza-baldintzak betetzen diren ikuskatuko du, jarraipena egingo du, erabakiak hartuko ditu eta horretarako behar diren jarraibideak emango ditu. Ikuskapena amaieran ez ezik, modu jarraituan ere egingo da.

2. Enpresa adjudikaziodunaren lan eskubideak eta betebeharrak

1. Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan- arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako lan-plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarreatatik, bai zerbitzuaren beharreatatik), baja hori bete aurretik adjudikaziodunak Partzuergoari horren berri emango dio.

Adjudikaziodunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Udalbiltza Partzuergoak ez du inongo harreman juridikorik izango adjudikaziodunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.

2. Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatzailerak, adjudikazioa lortzen badute.

Halaber, behin kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartuta egongo dira.

Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.



3. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikulua araberako.

3. Berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko eskubide eta betebeharrak

1. Enpresa adjudikaziodunak nahitaez beteko ditu honako hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
2. Enpresa adjudikaziodunak komunikazio ez- sexista eta inklusiboa egingo du bere dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta materialetan.
3. Beste neurri batzuk hartzeari utzi gabe eta berdintasun arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki, kontratuaren adjudikaziodun gisa izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein izanda ere, derrigorrez bermatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta arreta berezia jarriko du soldata-diskriminazioan.
4. Zerbitzua garatu behar duen talde lizitatzailerik pertsona guztiek emakumeekiko eta gizonekiko errespetuzko eta berdintasunezko tratua edukiko dute une oro, eta ez dute jarrera gogaikarri, iraingarri edo diskriminatzailek hartuko sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo orientazio sexualagatik.
5. Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren eta Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua-eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera:
 - Enpresak 50 langile baino gehiago baldin baditu, Berdintasun Plana aurkeztu beharko du.



Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera (berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena), berdintasun plana egin beharra dakarren pertsona-kopurua kalkulatzeko, enpresaren plantilla osoa hartuko da kontuan, edozein izanda ere haren lan- zentroak eta edozein izanda ere lan- kontratazioaren modalitatea; alegia, pertsona hauek ere kontuan hartuko dira: bai aldizkako lan-kontratu finkoak dituzten pertsonak, bai iraupen jakineko kontratuak dituzten pertsonak eta bai langileak lagatzeko kontratuak dituzten pertsonak.

6. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko berdintasun-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da. Halaber, baldintza hauek betetzeko, adjudikaziodunak Parekidetsun Departamentuaren aholkularitza eta laguntza jaso ahal izango ditu.
7. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira, kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikulua arabera.

8. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeak dakartzen lanen ondorioz hirugarrengoei egindako kalteak eta galerak, SPKLak 196 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horren ondorioetarako, 150.000 euroko aseguru-poliza bat izenpetu beharko du.

Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen denbora osoan eta, halakorik balego, luzapenetan.

9. KONTRATUA ALDATZEA



Behin kontratua burutzen denean, interes publikoak eragindako aldaketak bakarrik sartu ahalko dira, klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLaren 205. artikuluan jarritako kasuetan eta mugekin.

Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, proposamena idatziko dute dagokion departamentuak eta kontratuaren arduradunak, aldaketa arrazoitzen, deskribatzen eta baloratzen duten agiriekin batera. Administrazioak enpresa kontratistari entzunaldia emango dio, aldaketa onartu aurretik. Kontratazio-organoak onartu beharko ditu aldaketok; baina, aurretik, SPKLren 191 eta 207 artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatuko da eta dokumentu administratiboa formalizatuko da, lege bereko 153. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea berregokituta, hala behar bada.

10. KONTRATUA BUKATZEKO ARRAZOIAK

Kontratua bukatzeko arrazoiak izango dira: SPKLren 211 artikuluan aurreikusitakoak, bai eta lege bereko 313 artikuluan bereziki zerbitzu-kontratueterako jasotakoak, eta 294 artikuluko c), d) eta f) letretan aurreikusitakoak.

Kontratua bukatzeko berariazko arrazoiak izango da administrazioarekin kontratatzeke betekizunak bat-batean galtzea (kontratatzeke gaitasuna eta kaudimena galtzea eta kontratatzeke debekuren bat izatea), SPKLan jartzen duen moduan.

11. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari honakoak dagozkie: a) kontratua interpretatzea b) kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea c) interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea d) kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, SPKLan eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horiek zehaztutako baldintza eta ondorioak betez.

12. KONTRATUA HIRUGARRENEI LAGATZEA

Udalbiltza Partzuergoak berariaz baimendu ezean, adjudikaziodunak ezingo dizkie kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu..



13. DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalen tratamendutzat joko dira pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriari buruzko datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezabatzeko eragiketa eta prozedura teknikoak, automatizatuak izan zein ez, bai eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan sortzen diren datu-konexioak ere.

Baldin, enpresa kontratistak edo azpikontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa eta ondorengo arauak beteko ditu:

- 1) Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.
- 2) Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren helburua betetzeko bakar-bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, beste ezertarako erabili.
- 3) Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.
- 4) Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebeharrak horrek iraun egingo du.
- 5) Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:



Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa adjudikaziodunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehenez ere astebeteko epean. Bai enpresa adjudikaziodunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.

- ⌚ Adjudikaziodunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.
- ⌚ Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, adjudikaziodunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

Kontratututako erakundea datu pertsonalen lagapen-hartzaile bada (hirugarrenari aplikatu beharreko legezko betebeharrak edo gaitzaren baten edo datuak babesteko araudian aurreikusitako beste edozein babes juridikoren arabera), bai Udala bai erakunde kontratista tratamendu- jardueren erantzukidetzat hartuko dira.

Horrela, entitate bakoitza arduratuko da DBEOren printzipioak betetzeaz eta interesduneri tratamenduaren berri emateaz, kontratuaren edo zerbitzuaren xedearan arabera beren datuak lagatzeko aukera adierazten duten klausulen bidez.

Pertsona interesdunek eta legitimatuek eskubideak baliatzeko eskaerak egiten badituzte, eta eskaerak entitate lagapen-hartzailearen datuei eragiten badie (esaterako, lagapenerako baimena

baliogabetzea), eskaera jasotzen duen erakundeak berehala jakinaraziko dio datuen erakunde lagapen-hartzaileari.



Aldeek segurtasun-neurriak aplikatu beharko dituzte adingabeen datu-transmisioetan, informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta alderdien arteko harreman juridikotik kanpoko hirugarrenei sarbidea eragozteko ere.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Klausulen agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: a) Sektore Publikoko Kontratuen Legea; b) Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra; c) Eta kasuan kasu, Administrazio Publikoen kontratazioan aplika daitezkeen arauak.

Administrazio-klausulen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

15. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Era berean, kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakorekin bat etorritz.

Kontratua interpretatzen, aldatzen, bukatzen eta horren ondorioetatik sortzen diren auziak kontratazio-organismoak ebaztuko ditu. Horretarako hartutako akordioek administrazio-bidea agortuko dute. Akordio horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoarekin bat etorritz; dena den, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta

124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, interesdunek aukeran izango dute berraztertze errekurtoa jartzea.



Bestalde, SPKLaren 44 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, kontratu honi kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri ahal zaio.

Oiartzun, 2023ko uztaila



1. ERANSKINA. DEUC.

2. ERANSKINA. ESKAINTZA

Izen-abizenak

Helbidea

Posta Kodea

Nortasun-agiria

Telefonoa

Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)

Izen-abizenak

Helbidea

Posta Kodea

Nortasun-agiria edo IFK (pertsone juridikoa bada):.....

Telefonoa



UDALBILTZA PARTZUERGOAK GEURETIK SORTUAK 2023-2024 BEKA DEIALDIAREN BAITAN ANTOLATZEN DITUEN ANTZERKIETARAKO ZERBITZU TEKNIKOA, EKIPOEN ALOKAIRUA, MANTENU ESZENIKOA ETA AURRE-EKOIZPENA

ADIERAZPENA:

1. Konpromisoa hartzen dudala onetsitako pleguen arabera zerbitzua hurrengo prezioetan eta kontratuan aurreikusitako iraupen-epean gauzatzeko. Aipatutako prezioetan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertu behar da, zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga-eremutako arbitrioak barne, baita kontratistaren etekin industrialara ere.

-Zerbitzua emango duen profesional-taldean emakumeen presentzia

-Kontziliazio neurriak:

2. Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiria, eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-osorik.
3. Kontratuak burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditut.
4. Era berean, lanaren zein zergen arloan legeak dioena edo araututa dagoena beteko dut.

.....-(e)n, 2023.....ko -ren ..-

(e)an

Sinadura



UDALBILTZA



III. ERANSKINA: aurre ikusi daitekeen baliabide teknikoaren zerrenda areto tamainaren arabera.

HANDIENA

AGERTOKIAREN NEURRIAK:

Luzera 14, 25 m

Zabalera 10,20 m ahotik

Garaiera 11,30 m

EDUKIERA:

399 (336 platean, 63 anfiteatroan). 600 aukirrik gabe.

ARGI, SOINU ETA TEKNIKA EKIPOAK

ARGIA

Materiala:

Potenziak:

- Instalaturako potentzia totala: 90 Kw

- Konpainientzako tomaren potentzia: 80 Kw

Bara elektrifikatuak:

Bara bakoitzeko zirkuitu kopurua: 12 - Potentzia: 2500 W

Eszenatokiko zirkuitu kopurua: 84

Aretoko zirkuitu kopurua: 36

Erregulazioa eta kontrola

Patch: elektronikoa, mahaian

- Zirkuitu kopurua: 120

- Erregulazio kanal kopurua: 120

Dimmerrak:

1- Mota: dijitala

- Kanalak: 24

- Potentzia: 2200

- Marka: Pulsar

2- Mota: dijitala

- Kanal kopurua: 96

- Potentzia: 2500

- Marka: StrandLighting

Seinale dijitala: DMX 512

Lau DMX bidalketa kabinen eta dimmerren artean

DMX puntu bat eta 3 eta 5 punta bara motorizatu bakoitzean.

Bi DMX 5 puntu agertokiko lurrian (ezkerrean eta agertokiaren fondoan).

- Konexio puntuak: iluminazio kontrola, agertokia eta splitter x8.

Kontrol mahaia: Strand MX24 eta ClassicPalette 750 konputerizatua

Aretoko argia kabinatik kontrolatua, erregulazio bitartez

SOINUA

Mikrofonoak:



3 Shure SM 12
2 Sennheiser EW 300 G2 eskuko inalanbrikoak
2 Sennheiser EW 112 G3 solapakoak
2 Samson
4 Shuresupercardioide ambientalak
2 mikro Audiothecnica AT2020.
Bateria Audiotechnica MBDK7 set oso bat.
4 kaja D.I aktibo, 2 KlarkTechnik eta 2 Behringer
1 kaja D.I aktibo estereo radiala
Kontrol elementuak:
Kontrol mahaia:
Yamaha LS9-32, dijitala, mono kanal kopurua: 32
Seinale prozesatuen ezaugarriak:
1 soinu prozesadorea BSS BLU 16
1 antifeedback 10 filtroekin.
Anplifikadoreak:
1 QSC (P.A.) 850 W
1 QSC (monitoreak) 370 W
1 Etapa de potencia Powersoft 1000w canal (subgrabe)

P.A. (bozgorailuak):
2 Master 700 W RMS
2 subgrabe 1000 W RMS
Monitoreak:
2 EAW 1000W
Audio patch-ak:
Kajetinak: 2 en hombros - Nº Envíos de señal : 12 - Nº de salidas monitores : 2

TXIKIENA

Espazio eszenikoa: 6 x 4 m eta 3m altuera.

RIDERRA:

Estrukturak:

Aforatzeko estruktura + teloiak (3 + 6 + 3)
Atzeko zubia 6m truss + 2 hanka
2 x hanka + 2 x T frontalerako

Argiak:

12 foko led (16A max)
Argi mahaia
kableatua

Soinua:

4 x bozgoragailu autoanplifikatu + tripodeak
Soinu mahaia
1 x mikro haririk gabea (diadema edo eskukoa + hanka)
Kableatua

2 teknikari muntai-desmuntairako + garraioa